

ESKUBIDEAK BALIATZEKO BETEBEHARRAZ INFORMATZEKO AGIRIA

Dokumentu honen bitartez, nire eskubide guztiak eta nire bizikidetzaren unitateko gainerako kideen eskubide guztiak baliatzeko betebeharren berri izan dut.

Horretarako, **dokumentu honetan bildutako konpromisoak hartzen ditut, eta adierazten dut bizikidetzaren unitateko edozein kideri egotz dakizkikeen kausengatik ez eskatzeak, ez erreklamatzeko, ez onartzeak edo ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea eragin dezakeela**

1) Hemen zerrendatutako laguntzak, prestazioak eta diru-laguntzak eskatzeko konpromisoa hartzen dut

- **Langabezia-prestazioa** → SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eskatu behar da.
- **Langabezia-sorospena** → SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eskatu behar da → Sorospen-motak:
 - Kotizaziopeko langabezia-prestazioa agortu zaien eta familia-erantzukizunak dituzten langileak.
 - Kotizaziopeko langabezia-prestazioa agortu zaien eta familia-erantzukizunik ez duten 45 urtetik gorako langileak.
 - Itzulitako langile emigratzaileak.
 - Legezko langabezian geratu diren baina kotizaziopeko prestazioa eskuratzeko gutxieneko kotizazioaldia oraindik osatu ez duten langileak.
 - Espetxetik askatutako pertsonak.
 - Baliaezintasun handiko egoera hobetzeagatik berrikuspen-espeditentia ireki zaien eta horren ondorioz erabat gaitzat edo ezgaitu partzialtzat aitortu diren langileak.
 - 55 urtetik gorako langileentzako langabezia-sorospena.
- **Beste prestazio batzuk:** prestazio hauek eskatu baino lehen, beharrezkoa da aurrez LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuaren erreferentziako bulegoan informazioa eskatzea.
 - GEA: gizarteratzeko errenta aktiboa: aurrez informazioa eskatu LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuaren erreferentziako bulegoan.
 - EAP: Enplegua Aktibatze Programak: aurrez informazioa eskatu LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuaren erreferentziako bulegoan.
 - PREPARA plana: aurrez informazioa eskatu LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuaren erreferentziako bulegoan..
 - Beste batzuk:
- **Kotizaziopeko pentsioak** → Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalan eskatu behar dira → Pentsio motak:
 - Erretiro-pentsioa.
 - Lanerako ezintasun iraunkorragatiko pentsioa: osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
 - Heriotza-pentsioa: alarguntza-pentsioa eta zurtasun-pentsioa.
- **Kotizazio gabeko pentsioak** → Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako foru-aldundietan eskatu behar dira → Pentsio motak:
 - Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa.
 - Kotizazio gabeko ezintasun-pentsioa.

2) Konpromisoa hartzen dut bidegabeko kaleratzeen, kaleratze objektiboen edo obra-amaierako kontratua bukatzearen ondorioz dagozkidan kalte-ordainak eskatzeko eta, hala badagokio, erreklamatzeko.

Kalte-ordainak jasotzen ez badituzte, ditudan eskubide ekonomikoak baliatzen ari naizela iritzeko, honako izapide eta epe hauek betetzeko betebeharren jakinaren gainean nagoela adierazten dut:

- **Doako justiziarako eskabidea.** Doako justiziarako eskabidea Orientazio Juridikoko Zerbitzuan (OJZ) aurkeztu da, ofizialki abokatu bat lortzeko. Doako justiziarako eskabidea bi hileko epean aurkeztu behar du, kaleratzea gertatu zenetik edo kontratua amaitu zenetik aurrera zenbatzen hasita.
- **Demanda jartzea.** OJZ doako justizia onartzen edo ukatzen didan ebazpena jaso ondoren, 2 hilabete izango ditut dagokidan demanda jartzeko. Izan ere, doako justizia ez emateak ez nau libre uzten nire eskubide ekonomikoak baliatzeko betebeharretik. Horretarako, abokatuarekin harremanetan jarriko naiz eta demanda aurkeztera presatuko dut.
- **Agerraldia.** Bistara aurkezteko eta nire nahia erreklamatzeko bidezko diren izapide judizial guztiak egiteko betebeharra dut.
- **Betearazteko izapideak.** Epai/ebazpen judiziala eman eta zordundutako zenbatekoen ordainketa jaso ez badut, 2 hileko epean barnean (epaia eman zenetik zenbatzen hasita) betearazpen-izapideak abiaraztera presatuko dut nire abokatuak (ondasunen eta enbargoen ikerketa), azkenik benetan jasotzeko zor dizkidaten zenbatekoak.
- **Ebazpena.** Nolanahi ere, izateko kaleratzea gertatu denetik edo kontratua amaitu denetik zenbatzen hasita, 2 urteko epea (24 hilabete) egongo da dagokion ebazpen judiziala emateko eta, hala badagokio, zordundutako zenbateko guztiak ordaintzeko.

ESKUBIDEAK BALIATZEKO BETEBEHARRA

Indarrean sartzeko data: 2018/05/01

Or. 2tik 2

3) Konpromisoa hartzen dut inongo jaraunspeni ere uko ez egiteko.

- Konpromisoa hartzen dut jaraunspena inbentario-emaitzaren arabera onartzeko jaraunspeneko ondasunak defizitarioak badira.
- Kausatzailea hil zenetik zenbatzen hasita, jaraunspena 6 hilabeteko epean onartzeko konpromisoa hartzen dut. Konpromisoa hartzen dut 6 hilabeteko epean egintza judizialak abiarazteko (doako justiziarako eskabidea egitea eta demanda aurkeztea) jaraunspen artean desadostasunak badaude.

4) Bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagokion mantenu-pentsioa edo konpentsazio-pentsioa erreklamatzeko konpromisoa hartzen dut, baita gurasoen eta seme-alaben betebeharrei jarraikiz bidezkoak izan daitezkeen beste edozein eskubide erreklamatzeko konpromisoa ere. Horri dagokionez, honako hauen jakinaren gainean nagoela adierazten dut:

Ditudan eskubide ekonomikoak baliatzen ari naizela irizteko, honako izapide eta epe hauek betetzeko betebeharren jakinaren gainean nagoela adierazten dut:

- **Doako justiziarako eskabidea.** Doako justiziarako eskabidea Orientazio Juridikoko **Zerbitzuan (OJZ) aurkezten da, ofizioko abokatu bat** lortzeko. Doako justiziarako eskabidea bi hileko epean aurkeztu beharko dut, izatezko banantzea gertatzen denetik aurrera edota ordaindu gabeko hirugarren hiletik aurrera zenbatzen hasita.
- **Demanda jartzea.** OJZk doako justizia onartzen edo ukatzen didan ebazpena jaso ondoren, 2 hilabete izango ditut dagokidan demanda jartzeko. Izan ere, doako justizia ez emateak ez nau libre uzten nire eskubide ekonomikoak baliatzeko betebeharretik. Horretarako, abokatuarekin harremanetan jarriko naiz eta demanda aurkeztera presatuko dut.
- **Agerraldia.** Bistara aurkezteko eta nire nahia erreklamatzeko bidezko diren izapide judizial guztiak egiteko betebeharra dut.
- **Betearazteko izapideak.** Epai/ebazpen judiziala eman eta zordundutako zenbatekoen ordainketa jaso ez badut, 2 hileko epearen barnean (epaia eman zenetik zenbatzen hasita) betearazpen-izapideak abiaraztera presatuko dut nire abokatuarekin (ondasunen eta enbargoen ikerketa), azkenik benetan jasotzeko zor dizkidaten zenbatekoak.
- **Ebazpena.** Nolanahi ere, izatezko banantzea gertatu zenetik edo mantenu-pentsioa ordaintzeari utzi zitzaionetik zenbatzen hasita, 2 urteko epea (24 hilabete) emango da dagokion ebazpena emateko eta, hala badagokio, zordundutako zenbateko guztiak ordaintzeko.

Ezarritako epeak betetzen ez baditut, ezinbesteko kausak frogatu beharko ditut, edota ebazpena egotzi ezin zaizkidan arrazoiengatik eman ez dela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu.

Demanda atzerrian aurkeztu beharrak ez nau salbuesten jatorrizko herrialdean mantenu-pentsioa erreklamatzeko betebeharretik. Horri begira, izatezko banantzea gertatu zenetik edo mantenu-pentsioa ordaintzeari utzi zitzaionetik zenbatzen hasita, 2 urteko epea (24 hilabete) izango dut dagokion ebazpena aurkezteko.

Bistara ez aurkezteak edo zordundutako zenbatekoen zati bati uko egiteak nire eskubideak baliatzeko betebeharra bete ez dudala iriztea ekarriko du.

Mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik epaiaren betearazpena erreklamatzeko martxan jarritako prozesuetan, komenigarria da ebazpen-egunera arte kobratu gabeko zenbatekoak ordaintzeko eskatzea.

Dokumentu hau sinatzen dut LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta, beronen bidez, konpromisoa hartzen dut nire bizikidetzaren unitateko kideen eskubide ekonomikoak erreklamatzeko, eta onartzen dut betebehar hori ez betetzeak dokumentu honetan jasotako ondorioak izango dituela.

Data eta eskatzailearen sinadura.

_____ an, 20 ____ ko _____ aren _____(e)an Sin.: _____